



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2005eko martxoaren 22ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.  
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.  
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.  
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.  
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.  
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.  
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

XABIER PAYA jn.

#### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko martxoaren hogeita biko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2005-02-24ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2005eko otsailaren 24ko ohiko bileraren akta onetsi du.

**2.- 2004ko EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINTZAKO GERAKINA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko martxoaren 1ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 125/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko otsailaren 23an hartutako 23. irizpenak honakoa dio:

2004ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
Aintzatetsitako eskubide garbiak	39.922.932,58	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	32.312.931,95	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	275,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	464.873,19	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaizta		7.610.000,63
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaizta		- 464.598,19
<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		<b>7.145.402,44</b>
Finantzazioko desbideraketa positiboak		7.887.439,55
Finantzazioko desbideraketa negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		3.973.273,64
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>3.231.236,53</b>

<b>DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>10.406.155,47</b>
a) Aurtengo aurrekontua	9.517.710,71	
b) Itxitako aurrekontua	2.491.884,59	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	289.262,76	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	-1.892.702,59	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>3.237.741,56</b>
a) Aurtengo aurrekontua	1.462.532,04	
b) Itxitako aurrekontua	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	1.775.209,52	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>4.869.752,20</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	4.869.752,20	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>		<b>12.038.166,11</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	10.406.155,47	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	3.237.741,56	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	4.869.752,20	
Eragindako diruzaintzako gerakina		8.157.530,01
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina		3.880.636,10
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>		<b>12.038.166,11</b>



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**OHARRA:** Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 12.038.166,11 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 9.671.654,31 €-ko gastua egiteko konpromisoa hain zuzen ere; halaber, etorkizuneko ekitaldietan zenbait gastu egiteko konpromisoa ere hartu da, 36.304,84 €-ko gastua, hain zuzen; horrenbestez erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 2.330.206,96 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontu-emaizaren eta diruzaintzako gerakinaren jakinaren gainean geratzea.
2. Alkateak Alkatzaren 2005-02-21eko Dekretuaren bitartez emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
3. Udal honen osoko bilkurari berau onetsi dela jakinaraztea.

#### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako dekretuaren **jakinaren gainean eta ados** geratu da. Era berean, Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai honen berri ematea erabaki da.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkura Alkatzeta-Udalburutzaren 2005-02-21eko Dekretuaren **jakinaren gainean geratu da**; horren bitartez onetsi egin zituen 2004ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.

**3.- SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN 2004ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko martxoaren 1ean egindako bileran onetsi zuen Alkatzeta-Udalburutzaren 126/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko otsailaren 23an hartutako 24. irizpenak honakoa dio:

Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
Aintzatetsitako eskubide garbiak	1.409.409,56	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	1.408.435,74	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaizta		973,82
Itxitako aurrekontuaren aurrekontu-emaizta		0,00
<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		<b>973,82</b>
Diruzaintzako gerakinekin finantzaturako gastuak	19.100,00	
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>20.073,82</b>



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

### DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

	Eurotan	Eurotan
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>60.654,51</b>
a) Aurtengo aurrekontua	48.320,60	
b) Itxitako aurrekontua	7.220,73	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	11.846,41	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	6.733,23	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>91.159,01</b>
a) Aurtengo aurrekontua	35.404,99	
b) Itxitako aurrekontua	557,96	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	55.196,06	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>52.932,22</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	52.932,22	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>		<b>22.427,72</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	60.654,51	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	91.159,01	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	52.932,22	
<b>Eragindako diruzaintzako gerakina</b>		<b>0,00</b>
<b>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</b>		<b>22.427,72</b>

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontu-emaizaren eta diruzaintzako gerakinaren jakinaren gainean geratzea.
2. Alkateak Alkatezaren 2005-02-21eko Dekretuaren bitartez emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
3. Udal honen osoko bilkurari berau onetsi dela jakinaraztea.

### EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako dekretuaren **jakinaren gainean eta ados** geratu da. Era berean, Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai honen berri ematea erabaki da.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkura Alkatetza-Udalburutzaren 2005-02-21eko Dekretuaren **jakinaren gainean geratu da**; horren bitartez onetsi egin zituen Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina.

### **4.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2004ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA:**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko martxoaren 1ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 127/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko otsailaren 23an hartutako 25. irizpenak honakoa dio:

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
Aintzatetsitako eskubide garbiak	980.818,13	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	921.968,64	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	22,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaiza		58.849,49
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaiza		22,00
<b>AURREKONTU-EMAITZA</b>		<b>58.871,49</b>
Diruzaintzako gerakinekin finantzatzutako gastuak		80.181,64
<b>AURREKONTU-EMAITZA DOITUA</b>		<b>139.053,13</b>

<b>DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA</b>		
	<b>Eurotan</b>	<b>Eurotan</b>
<b>Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak</b>		<b>3.250,90</b>
a) Aurtengo aurrekontua	1.829,71	
b) Itxitako aurrekontua	1.421,19	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	0,00	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko sarrerak	0,00	
<b>Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</b>		<b>63.469,87</b>
a) Aurtengo aurrekontua	37.469,22	
b) Itxitako aurrekontua	150,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	25.850,65	
d) Sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
<b>Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</b>		<b>277.194,90</b>
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena	277.194,90	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>		<b>216.975,93</b>
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	3.250,90	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	63.469,87	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	277.194,90	
<b>Eragindako diruzaintzako gerakina</b>		<b>74.818,36</b>
<b>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</b>		<b>142.157,57</b>

**OHARRA:** Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 216.975,93 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 74.818,36 €-ko gastua egiteko konpromisoa hain zuzen ere; horrenbestez erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 142.157,57 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Batzorde honi aurkeztu zaizkion aurrekontu-emaizaren eta diruzaintzako gerakinaren jakinaren gainean geratzea.
2. Alkateak Alkatezaren 2005-02-21eko Dekretuaren bitartez emaitza horiek onetsi dituela jakintzat ematea.
3. Udal honen osoko bilkurari berari onetsi dela jakinaraztea.

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako dekretuaren **jakinaren gainean eta ados** geratu da. Era berean, Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean gai honen berri ematea erabaki da.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkura Alkateza-Udalburutzaren 2005-02-21eko Dekretuaren **jakinaren gainean geratu da**; horren bitartez onetsi egin zituen Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.

**5.- TALDE POLITIKOEK TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOETAN DITUZTEN ORDEZKARIEN ORDEZPENAK ARAUTZEA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko martxoaren 8an egindako bileran onetsi zuen Alkateza-Udalburutzaren 162/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko martxoaren 1ean hartutako 33. irizpenak honakoa dio:

Otsailaren 15ean egindako batzarrean, Informazio Batzorde honek 27/05 irizpena onetsi zuen; hona hemen, hitzez hitz:

*“Egun honetan (sarrera-erregistroko zk.: 1.058/05), Talde Popularraren udal honetako bozeramaileak honako idazki hau aurkeztu du:*



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

*“Talde politikoek Tokiko Erakunde Autonomoetan dituzten ordezkarien ordezpenak arautzeko proposamena*

*Gaur egun Tokiko Erakunde Autonomoen estatutuek (Euskararen Erakundea eta Soinu Atadia Fundazioa) ez dute azaltzen euren Zuzendaritza Kontseiluen batzarretara talde politikoek ordezkoak agindu ahal izateko aukera, titularrak bertara joan ezin badaitezke. Udalaren Informazio Batzordeen funtzionamendu-araubideak, aldiz, bai ezartzen du aukera hori eta, ondorioz, talde politikoek mahaikide titularrak eta ordezko mahaikideak izendatzen dituzte.*

*Alderdi Popularreko kideok Zuzendaritza Kontseiluen eta Informazio Batzordeen funtzionamendua parekatzea proposatu nahi dugu, alde horri dagokionez. Horretarako, gure ustez, beharrezkoa da Tokiko Erakunde Autonomoen estatutuak aldatzea.*

*Proposatu dugun aldatetak Estatutuen artikuluetan beste paragrafo bat sartzeari ekarriko luke; honakoa izango litzateke testu berri honen kokalekua:*

*Euskararen Erakundearen estatutuetan, "6.1 Mahaikideak" artikuluan, lehenengo paragrafoaren ondoren.*

*Soinu Atadia Fundazioaren estatutuetan, "5. Mahaikideak" artikuluan, lehenengo paragrafoaren ondoren.*

*Horrela bada, proposatutako testua –berbera estatutu bietarako– honakoa izango litzateke:*

*“Talde politiko bakoitzak mahaikide titularraren ordezko bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu; ordezko mahaikideak Zuzendaritza Kontseiluaren batzarretan parte hartu ahal izango du, mahaikide titularrak bertara joan ezin denean”.*

*Barne Araubideko Informazio Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta horri buruzko erabakia beste bilera batean hartzea erabaki du, Erakunde Autonomoen estatutuetakoa kokalekua zorrotzago aztertzeko.”*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** honako irizpena eman du:

1.- Estatutuak aldatu behar izan gabe, onartu egingo da talde politiko bakoitzak, Erakunde Autonomo bakoitzeko Zuzendaritza Kontseiluan ordezkatzeko duen kidea izendatzeko unean, titularrak eta ordezkoak izendatzeko aukera izatea.

2.- Ontzat emango da talde bakoitzak titularrak eta ordezkoak izendatzeko egindako proposamena; hona hemen, zehatz-mehatz:

\* Soinu Atadia fundazioa:

- EAJ-PNV: Jesús Bilbao Curiel eta Javier Bidea Molinillo titularrak izango dira; Bixente Barreiro Asensio eta Ainara Urbieta Jáuregui, aldiz, ordezkoak.
- PSE-EE-PSOE: María Nieves Hurtado Urriaga titularrak izango da; Mercedes Angulo Ordozgoiti, aldiz, ordezkoa.
- PP: Arturo Aldecoa Ruiz titularrak izango da; Aiala Eguiluz Rodríguez, Ignacio Gamero Delgado eta Xabier Olabarrieta Arnaiz, aldiz, ordezkoak, adierazitako ordenan.
- EB-BERDEAK: Rubén Belandía Fradejas titularrak izango da; Iñaki Gomendiourrutia Arnaiz, aldiz, ordezkoa.
- EA: Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jn.

\* Euskararen Erakundea:

- EAJ-PNV: Jesús Bilbao Curiel titularrak izango da; Bea Resa Bardeci eta Javier Bidea Molinillo, aldiz, ordezkoak.
- PSE-EE-PSOE: Mercedes Angulo Ordozgoiti titularrak izango da; José Manuel Toledo Cañamero, aldiz, ordezkoa.
- PP: Xabier Olabarrieta Arnaiz titularrak izango da; Ignacio Gamero Delgado, Arturo Aldecoa Ruiz eta Aiala Eguiluz Rodríguez, aldiz, ordezkoak, adierazitako ordenan.
- EB-BERDEAK: Rubén Belandía Fradejas titularrak izango da; Iñaki Gomendiourrutia Arnaiz, aldiz, ordezkoa.
- EA: Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jn.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, talde politikoez tokiko erakunde autonomoetan dituzten ordezkarien ordezkien arautzeko Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpena **berrestea erabaki du**.

**6.- BBK SOLIDARIOA FUNDAZIOAREN ETA LEIOAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LAMIAKO ETA TXOPOETAKO JARDUERETARAKO.** Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko martxoaren 15ean egindako bileran onetsi zuen 44/2005 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Batzordera bertaratu diren kide guztiei BBK SOLIDARIOA FUNDAZIOAK eta Leioako udalak Lamiako eta Txopoetako jardueretarako egindako lankidetzahitzarmenaren ale bat eman zaie.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako buruak, hitzarmenaren edukia eta helburuak azaldu ditu, zehatz-mehatz.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** aldeko irizpena eman dio BBK SOLIDARIOA FUNDAZIOAREKIN Lamiako eta Txopoetako jardueretarako lankidetzahitzarmena sinatzeari. Era berean, egoki iritzi dio udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarreko aztergai-zerrendan berau onesteari buruzko puntua sartzeari.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, BBK SOLIDARIOA FUNDAZIOAREKIN Lamiako eta Txopoetako jardueretarako egindako lankidetzahitzarmena **onestea erabaki du**. Horrela bada, alkate jauna ahaldu da hitzarmena sinatu eta onesten honetatik eratorritako tramite guztiak egiteko.

**7.- UDONDO AUZOKO 17. ZENBAKIA DUEN ERAIKINAREN JABEEKIN EGINDAKO AKORDIOA, IBILGAILUEN TRAFIKOA ERRAZTEKO AUKERA EMANGO DUEN AZALERA ESKUALDATZEKO.**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko martxoaren 8an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 166/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko martxoaren 9an hartutako 32. Irizpenak honakoa dio:

*“Udaleko Zerbitzu Teknikoek Udondo auzoko 17. zenbakia duen eraikinaren jabeekin egindako akordioaren berri eman dute. Horri esker, Leioako udalak 31 m<sup>2</sup> eduki ahal izango ditu, Kandelazubieta eta Doctor Luis Bilbao Libano kaleen eta Sabino Arana etorbidearen elkarguneetan eraikitzen ari den biribilgune berria eraikitzearen ondorioz sortu den oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioan segurtasuna handitzea.*

*Hain zuzen ere, 2005eko martxoaren 2an, obrak burutzearen ondorioz lur-zatiak saltzeko kontratua idatzi zen; horren bitartez, jabetza pribatuak 31 m<sup>2</sup>ren titulartasun juridikoa*



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

eskualdatu zuen (horretarako beharrezkoa izan da atxikitako 6 trasteleku eraistea eta beste leku batean jartzea), aipatutako elementu horiek leheneratzearen truke. Obra 35.418,72 eurotan zenbatetsi da (BEZ barne).

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

Obra burutzearen ondorioz aipatutako lur-zatiak saltzeko kontratuaren edukiaren jakinaren gainean eta ados geratuko da.

35.418,72 euroko zenbatekoak Kandelazubietako biribilguneko obren likidazioa handituko du; obra hori 2004-02-17ko 117. ebazpenaren bitartez adjudikatu zen, 401.958 eurotan.

### **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** arestian azaldutako irizpena **berretsi** du eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman** du.”

Gai horri buruz, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko martxoaren 15ean egindako bileran, honako irizpena ematea erabaki zuen:

“Tokiko Gobernu Batzarrak 2005-03-15ean egindako batzarrean hartutako Alkatezaren 166. ebazpena helarazi zaio Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde honi. Bertan, Udondo auzoko 17. zenbakia duen eraikinaren jabeekin egindako akordioaren berri ematen da; horri esker, Leioako udalak 31 m<sup>2</sup> eduki ahal izango ditu, oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioan segurtasuna handitzeko. Akordio horren bitartez, jabetzak 31 m<sup>2</sup>ren titulartasuna eskualdatu du eta udalak, trukean, eraitsi behar izan diren atxikitako 6 trasteleku berriro eraikitzeko obra egingo du; Obra 35.418,72 €-tan zenbatetsi da (BEZ barne).

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Kandelazubieta eta Doctor Luis Bilbao Libano kaleen eta Sabino Arana etorbidearen elkarguneetan eraikitzen ari den biribilgune berrian 31 m<sup>2</sup> eskuratzearen jakinaren gainean eta ados geratuko da.

2. Alkate jauna ahaldunduko da, Leioako udalaren izen eta ordezkartzan, dagokion erosketa eskritura sina dezan.

3. Ondasunen udal inbentarioan azalera hau eskuratu dela idatzi beharko da.

4. Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarraren aztergai-zerrendan irizpen honetan azaltzen den 31 m<sup>2</sup>-ko azalera eskuratzeari buruzko puntua sartuko da.”

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenak berretsiz, **aho batez onetsi du** Kandelazubieta eta Doctor Luis Bilbao Libano kaleen eta Sabino Arana etorbidearen elkarguneetan eraikitzen ari den biribilgune berrian 31 m<sup>2</sup> eskuratzea.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Horrela bada, alkate jauna ahaldundu da eskriturak eta onespen honetatik eratorritako gainerako agiri guztiak sinatzeko.

**8.- “URBINAGATIK UNIBERTSITATERAKO TRANBIAREN TRAZADURA PROIEKTUA, LEHENENGO FASEA EZARTZEA. LEIOATIK UNIBERTSITATERAKO TARTEA” IZENEKO AGIRIAREN INFORMAZIO PUBLIKOA. AURKEZTU DIREN ALEGAZIOAK:**

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko martxoaren 16an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 42/2005 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak 2004-12-13an hartutako ebazpenaren berri eman dute; horren bitartez, jendaurrean azaltzen da *Urbilagatik Unibertsitaterako Tranbiaren Trazadura Proiektua. Lehenengo fasea ezartzea. Leioatik Unibertsitaterako tartea*. Aipatutako ebazpen hori 2005-01-19ko EHAAn argitaratu zen, eta hogeita hamar asteguneko epea ireki zen alegazio egokiak aurkezteko.

Ondorioz, udal teknikariek zehatz-mehatz azaldu dituzte Trazadura Proiektuan eragina duten inguruabarrak, geltokien kokalekua, tranbia-linearen eta dagoen zein aurreikusi den ibilgailuen trafikoaren arteko koordinazioa eta antzeko gaiak aztertuz. Sabino Arana etorbideko trazadurari dagokionez, hainbat alternatiba aztertu dira trenbideen kokapen zehatzari buruz; horren harira lortu den ondorioa izan da, geroagoko fase batean egingo den eraikuntzako proiektu teknikoan zehaztu beharreko zehaztapena edozein dela ere, beharrezkoa dela Sabino Arana etorbidean 69. zenbakia duen higieztina eraistea. Era berean, udaleko Zerbitzu Teknikoek uste dute proposatutako trazadura egoki eta bideragarriagoa dela; izan ere, idatzi aurreko faseetan koordinazio egokia egon da horien artean Eusko Jaurlaritzak egindako Azterlanaren ardura duen ingeniari-entresaren artean.

Halaber, Auzotik elkarteak 2005-03-04an aurkeztu zuen idazkiaren edukiaren berri eman da (sarrera-erregistroko zk.: 1.608); horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzari aurkeztutako alegazioaren kopia ere erantsi zuten, trazadura alternatiboa proposatuz.

Era berean, Emilio Baquerizo Ubieta jaunak, Ubedeneko Plan Partziala sustatu zuen Jardines de Sarriena, S.L. merkataritza-etxearen izen eta ordezkartzan, hainbat zehaztapen tekniko egin ditu eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak horien gaineko txostena egin beharko du.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak**, elkarri iritziak luze azaldu ondoren, Udalaren osoko bilkurak honako jarduera hauek onestea komeni dela iritzi du:

- Auzotik elkarteak aurkeztutako alegazioaren edukiaren jakinaren gainean geratu da; hala ere, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza izan beharko da horri buruzko txostena eman eta erantzuteko arduraduna, alegazioa berari aurkeztu baitzaio.
- Emilio Baquerizo Ubieta jaunak aurkeztutako alegazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak eman beharko du horri buruzko txostena.
- Etorkizuneko tranbiaren trazadurari buruzko alternatiba ezberdinak aztertu ondoren eta horietan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta (ibilbidearen denbora, hiri-guneko sinergiak, egoitza hazkundearen aurreikuspenak, guneeetako topografia, etab.), Leioatik Unibertsitaterako tartean tranbia ezartzeko trazadurari egokiena proposatu dena dela aintzatetsiko da.
- Eraitsi beharreko higieztinen artean Sabino Arana kalean 69. zenbakian duen eraikina sartzea komeni dela jakinaraziko zaio Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzari.
- Era berean, Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio Leioako udala ahalegin handia egiten dabilela sustatzaile probatuei epeak betetzeko eskatzen, 2006. urtean, Udondoko Bulebarrean, tranbiaren azpiegituraren euskarri izan ahal izango den plataforma bat eraikita egoteko.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Horretarako, ahalik eta presa handienaz egin beharko dira beharrezko tramiteak, obrak ahalik eta lasterren hasi ahal izateko eta, nolana ere, 2008ko ekitaldiaren aurretik hasteko.

- Behin betiko onesteko agirian honako inguruabar hauek aztertze eskatuko da:
  - Garajeen kokalekua aldatzea.
  - Bidegorria eraikitzea unibertsitateraino.

Irizpen hau PPko ordezkarien boto partikularrekin hartu da; garajeetarako proposatutako kokalekuarekin ados daudela azaldu dute.

**Eako Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, EA-koak pozten dira azkenean obra hori egingo dela-eta. Horri buruz esan du eztabaida publikoa eta erakusketa atzeratu egin direla, eta neurri batean eragozpena izan da eskatutako epean Aldundiaren edo Gobernuaren erantzunik jaso ez izana, epeak atzeratzea zela-eta, jendeak jakinaren gainean egonda komentatu ahal izan zezan, oraindik epearen barruan dagoen erakusketaren ostean.

Adierazi du azpiegitura-obra horrek baldintzatu egiten duela herriaren diseinua, goranzko norabidea duten bide bi horien aprobeitxamenduan; eta aukera horren aprobeitxamendu hain urria trafikorekin eragozpenekin konpartitu behar dela, baita tranbiarekin, bidegorriekin, aparkalekuekin, etab. Horregatik ezinbestekoa da azaldu ahal izatea, arrazoitu ahal izatea, jendeak hau guztia bizi ahal izatea, ziurrenik bizimodua aldaraziko duelako, eta zehazki, Tokiko Agenda 21-eko arduraduna den aldetik azpimarratu nahi du haxe dela unea bizilagun guztiak garraio pribatuaren erabilerari buruz kontzientziatzeko; erabiltzeko modu hori ez dela eraman behar mutur irrazionalerara, estatistikek erakusten duten bezala. Bide horretatik jarraituz gero mutur horietaraino helduko gara; horregatik, azpimarratu nahi du pentsamoldeak aldatzeko unea dela.

Adierazi du herriko sozietate edo elkarte batzuek parte hartu dutela eta aldaketa alternatiboak proposatu dituztela. Hori gertatu izanagatik zoriontzat dira, eta emandako babesagatik nahiz eztabaidatzeko epea eta aukera edukitzeagatik ere bai. Esan du Gobernuak erantzunak eta arrazoiak eman behar dituela aukeren azterketa hori azaldu eta jorratu ahal izateko.

Horren haritik esan du beste kezka bat dutela: azken albisteei jaramon eginda, burutzapen-epea atzeratzeko aukera ugari zegoen, eta hori Udalerri honetako bizilagunek oso txarto hartuko lukete, Metroa herriaren erdialdearekin lotzeko ebazpideak noiz emango irrikaz itxaron delako, eta haxe da gehiago ez atzeratzeko unea.

Amaitzeko adierazi du Udalak ere bere aldetik ahalegina egin duela Udondoko Bulebarra nahiz Udalari dagokion guztia egiteko, eta epeen barruan egiteko. Espero du atzerapen horiek ez direla luzeagoak izango.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Gure taldea ados dago Hirigintza Batzordearen irizpenarekin eta, beraz, baietza emango dio puntu honi.

Lehenik eta behin, ados gaude Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen tranbiaren trazadura-proiektuarekin; gure ustez trazadura-proiektu honek herriko erdigunea eta zenbait auzo Metro Geltokiarekin modu eroso eta ækar batez lotzen ditu eta, bestetik, irtenbide egokia ematen zaio unibertsitateak daukan komunikazio arazoari. Beraz, tranbiaren proiektua onuragarria izango da bai gure udalerrientzat eta bai unibertsitatearentzat.

Dena dela, ezin dugu ahaztu behar tranbiak ez dituela Leioak daukan garraio arazo guztiak konponduko; zalantzarik gabe, gure ustez, epe ertainean tranbiarekin batera irtenbide osagarriak ezarri beharko dira.

Baina momentu honetan, talde politiko honen kezkarik garrantzitsuena proiektu honen epeak dira.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen aldizkari berezi honetan Amann Sailburuak Leioako tranbía martxan jartzeko data 2008. urtean kokatzen du. Baina hilabete honetan hainbat hedabideetan agertutako adierazpenetan, Sailburuak 2010. urtera arte atzeratzen du tranbiaren inaugurazioa.

Gure ustez, tranbiaren proiektua proiektu estrategikoa da gure herriarentzat; beraz erabat kaltegarria izango litzateke atzerapen hori. Hori dela eta, ados gaude Hirigintza Batzordeak gai honi buruz egindako irizpenarekin hau da, Garraio Sailak 2008. urtea baino lehen hasiera eman behar dio Leioako tranbiaren proiektuaren burutzeari.

Tranbiaren kotxe-tokiei dagokienez, printzipioz ados gaude Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen tokiarekin: gure herriarentzat ona da tranbiaren instalazio guztiak gure udal-barrutian kokatuak izatea. Dena dela, Garraio Sailak bestelako kokapena proposatzen badu, gure taldeak aztertuko luke proposamen berri hori.

Bestetik eta Hirigintza Batzordean azaldu zen moduan, argi dago Sabino Arana Kanean, 69 zenbakian dagoen etxea oztopoa dela tranbiaren trazadurentzat, eta egokia da bere lurreratzea eskatzea.

Amaitzeko, tranbiaren obrak ezinbesteko aukera izango dira gure herrian Metro geltokitik unibertsitateko kanpuseraino bidegorri bat ezartzeko. Horregatik, eskatzen diogu Jaurlaritzari bidegorri-proiektua kontuan hartzea.

Beraz, hasieran esan dudan moduan, baietz bozkatuko dugu puntu honetan.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, haiek ondo deritzote proiektu hori abian jartzeari, eta neurri batean egoismoz jokatzuz esango lukete tranbiak auzoak lotzeko eta metroa unibertsitatearekin lotzeko balio duela, baina horretaz gain beste zerbaiterako ere: Leioa gehiago ikusteko; izan ere, 9 geraleku egonik, erabiliko duen jendeak 9 aukera izango dituela gelditzeko, paseatzeko, erosteko, ikusteko. Horren ondorioz, herriaren ondotik berori ikusi gabe igarotzen den eta bertan bizitzea lortzen ez duen biztanleria ibiltari horrek nolabaiteko aukera izango du Leioa begien aurrean edukitzeko, eta espero du hori oso ona izatea bertako merkataritzarako, udalerrriaren garapenerako eta beste hainbat gauzatarako.

Adierazi du hain zuzen ere horregatik, tranbiak herria zeharkatu eta egituratzea herriarentzat ona delako eskatu nahi diotela Gobernu Taldeari saia dadila, 2. linea garatzeko konpromisoa har dezala, lehenengoarekin hasi ez diren arren. Baina hori hala da hurrengoagatik: bere garaian, duela asko, Hirigintza Batzordean –bera bertan zegoela– 2. linearen trazadura aztertu zen eta ez zen inola ere gauza txikia, metroaren zerbitzua beste hainbat lekuri emateko aukera emango zuelako, udalerrian beti eskueratik kanpo dauden auzoei, alegia, leku batzuetan bizi izatea ezeroso izaten da-eta, urrun daudelako, etab.

Atzerapenei dagokienez, Gobernu Taldeari adierazi dio udalerrian, Aldundian eta –oraingoz– Legebiltzarrean gehiengo osoa dutela, eta horregatik, gehiengo hori erabili ahal dutela atzerapenik ez gertatzeko, epeetan dagoen desadostasun hori ez gertatzeko, berak uste baitu denak ados daudela gauza honetan: tranbiaren bidez metroa Unibertsitatearekin lotzea aukera bikaina izango dela, zeregin horretarako ez dago-eta metrorik; hortaz, uste du Gobernu taldeak gehiengoa baliatu behar duela beharrezkoa delako, gehiengo batzuk aldi baterakoak izango diren arren. Atzerapen horiek ulergaitzak dira, Administrazioek komunikazio joriagoa izan beharko luketelako, ez herritarren interesagatik, baizik eta gauzak beti errazten dituen hurbiltasun politikoaengatik.

Amaitzeko adierazi du komentario bat egingo duela gai horri, Amann jaunaren presari eta bere agendaren eragozpenei buruz, maketaren proiektuko aurkezpena talde politiko guztiei ohartaraztea eragotzi zuelako. Egon ez diren beste kideek bilera hartan informazioa eduki nahiko lukete, haien ustez une egokia zelako horretarako.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Amann Sailburua Leioan egon zenean eta hedabideei hitz egin zenean 2008a aipatu zuen, eta hurrengo egunean, harrigarriro, egunkari batek esan zuen Sailburuak 2010a aipatu zuela. Horri buruz



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

adierazi du hutsa egunkariarena dela, ez Sailburuarena, egunkarian agertzen den informazioa ez baitator bat Sailburuak esandakoarekin. Halaber, adierazi du José Manuel Toledok arrazoi osoa duela, bera oharkabetu izanagatik ez zitzaien deialdia gutxienez bozeramaile guztiei bidali. Horregatik, barkamena eskatu du.

Azkenik adierazi du gehiengoaren kontua egia dela, aldi baterako direla, eta gehiengo hori hobetuko dutela datozen hauteskundeetan, eta hirukoak gehiengo osoa izango duela.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, haiek botazioan abstenituko dira, ez daudelako inola ere tranbiaren aurka, ez dira inoiz ere aurka egon, eta ez daude aurkeztutako alegazioen aurka ere. Berak uste du guztiekin ados egongo direla, eta beraiek planteatu izan ohi dituzten proposamen batzuk beste talde batzuek aurkeztutako alegazioetan agertzen direla; alde batzuetan bat datoz, eta beste batzuetan ez. Uste zuten beste modu batean egin ahal zela, baina dagoen bezala dago, eta badakite ezin dela planteatu hori aldatzea, baina tranbiaren alde tinko eginda ere uste dute trazadura, prozesua, hobetu ahal zirela, eta argi utzi nahi izan dute bidegorria komunikazio-sistemaren zati dela, ezin dutela hipotekatzen segitu Aldekoan egin zuten bezala. Besterik gabe horregatik ez dute nahi izan trazaduraren prozedura babestu. Haien ustez, Leioaren etorkizunerako ideia ona da eta epeen gaiari buruz adierazi du berak nahi izango lukeela Alkateak orain bere hitza betetzea, eta legegintzaldiaren hasieran esan zuen bezala *“Udalbatza hau tranbiak eramango du”*, baina badaki zaila izango dela; dena dela, bere borondatea hala adierazi zuen eta denek txalotu zuten.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du ez dituela hitz horiek gogoan, baina beharrezkoa izanez gero haiek joan eta itzuli egingo direla.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariena, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAKo ordezkariarena; abstentzio bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko martxoaren 16an proposatutako jardueran **berrestea erabaki du**.

#### **9.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN**

**HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-02-18tik 2005-03-18ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

#### **10.- PRESAZKO MOZIOAK**

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, bere garaian hurrenez hurren Hezkuntza Batzordean eta Hirigintza Batzordean aurkeztutako testu buri buruzko presazko mozio bi daudela esan diote. Adierazi du lehenengo mozioa aztertuko dutela lehenengoz. Lehenengoz irakasleen egoerari buruzko mozioaren premia aztertuko dutela adierazi du; hortaz, lehenengoz PP udal taldeari emango dio hitza, azaltzeko; gero mozioaren premiari buruzko botazioa egingo dute.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

### 1. Mozioa

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK honako erabaki-proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko:**

#### **ERABAKI-PROPOSAMENA**

Joan den abenduaren 3an Eusko Jurlaritzak ebazpen bidez erabaki zuen hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez duten bitarteko irakasleek egonkortasuna galdu behar dutela. Egoera horrek batez beste 45 urteko adina eta 20 urteko antzinatasuna duten 157 irakasleri eragiten die. Irakasle horiek euren plaza galduko dute eta ordezkapenen zerrendetan sartuko dira. Azken batean, horrek esan nahi du langabezia geratuko direla, gaztelaniazko irakasleentzako plazarik ateratzen ez delako.

Eusko Jurlaritzaren erabaki horrek ELA-LAB eta STEE-EILAS sindikatuen oniritzia du. Paradoxa da, defendatu beharko luketen kolektibo horren "lanbide-heriotza" lagunduko dutela, eta heriotza hori egiaztatu ere egingo dutela, langileen eskubideak babestu beharrean. Gaztelaniazko ordezkotzako plazarik ez dagoenez, erabaki hori isilpeko kanporaketa bihurtu da, kalte-ordainik gabe eta eskuratutako eskubideak aintzatetsi gabe. Horrek gertakari tamalgari hau larriagotu egingo du. Nazionalistek neurri horrekin kolektibo horri "gaixoen lanbide-oliadura" eman diote, eta euren "hileta akademikorako" oinarriak jarri dituzte.

Gernikako Autonomia Estatutuaren 6.3 art.an ezarrita dago inor ere ezin dela diskriminatu hizkuntza-irizpideengatik, eta Espainiako Konstituzioak 14. art.an berdintasunaren abiaburua bermatzen du. Hezkuntza Sailaren jokabidea hizkuntza-arrazoiengatik egindako diskriminazioa da, argi eta garbi, isilpean eginda eta ahalik eta zarata gutxienarekin. Gainera, Lehendakaria arazo honetan ez da batere sentikorra, kaltetutako kolektiboaren biltzeari uko egin diolako, bere burua elkarrizketaren "txapeldun" gisa agerrarazi nahi duen arren.

Irakasleen kolektiboarentzako iguripenak ez dira batera itxaropentsuak. Haietako gehienak 45 urte baino gehiago dituzte; beraz, laneratzeko arazo gehien dituzten kolektiboetako batean daude. Enplegu-politiken bidez 45 urtetik gorako pertsonen laneratzeko sustatu nahi da, baina sindikatu batzuek eta Eusko Jurlaritzak, hori egin beharrean laneratzeko arazoak dituzten pertsonen lanbide-heriotza ziurtatzeari ekin diote.

Tamalez, Eusko Jurlaritzak eta sindikatu batzuek hartu dituzten erabakiak ez dira irizpide pedagogikoen edo akademikoen arabera, baizik eta irizpide ideologiko edo politikoen arabera, hizkuntzaren normalkuntzaren "gezurrezko aterkiaren" azpian gordeta. Euskararen normalkuntzaren alde mesede eskasa egiten dute euskara arma gisa erabiltzen duten horiek, irakaskuntzarako bokazioaren eta urtetako dedikazioaren bermea duten irakasleak administrazioan diskriminatu, baztertu eta kanporatu nahian. Irakasle hauek "euskararen etsai" gisa agerrarazi nahi dituzte. Euren alderdikeriaren biktimei berriro leporatu nahi diete borroroak izatea. Euskararen normalkuntzak atxikimenduak behar ditu, ez asmo gaiztoak, norgehiagokak edo diskriminazioa eragiten dituzten politikak.

Euren lanpostuak itzul diezazkieten eskatu nahi dugu; horretarako, Eusko Jurlaritzak bitarteko irakasleen laneko egonkortasuna bermatu behar du, bai eta 45 urte baino gehiago dituztenak hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasunetik salbuetsi, administrazioko gainontzeko sailtan gertatzen den bezala.

**ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIA BIHURTU DIO OSOKO BILKURARI. EZTABAIDATU ETA ONETS DEZAN.**

#### **ERABAKIA:**

**LEHENENGOA.** Udalak Eusko Jurlaritzari eskatuko dio bitarteko irakasleen laneko egonkortasuna bermatu dezala, eta horretarako 45 urte baino gehiago dituztenak hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasunetik salbuetsi ditzala.

**BIGARRENA.** Udalak kaltetutako bitarteko irakasleekiko elkartasuna adierazi nahi du, eta jasaten ari diren "apartheida" salatu nahi du. Halaber, laneko egonkortasuna berreskuratzearen alde egiten dituzten mobilizazioekin bat egiteko konpromisoa hartuko du.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du presazko mozio bi aurkeztu dituztela. Hain zuzen ere lehendik Informazio Batzorde bitan aurkeztu direla eta joan den otsailaren 22az geroztik Bilboko Bertendona Institutuan itxita dauden irakasleen gaiari buruzko mozioarekin hasiko dela. Bere mozioak euskal irakaskuntza publikoko irakasleen aldarrikapenak jaso egiten ditu. Irakasle horien batezbesteko adina 45 urte da, eta 20 urtetik gorako antzinasuna dute. Laneko egonkortasuna galduko dute, eta azken batean euren enplegua ere, dagokien hizkuntza eskakizuna lortu ez dutelako. Alderdi Popularrak laneko diskriminazio-egoera horren salaketa babestu nahi du. Horretarako, euren mozioaren puntu bietan zera eskatu nahi dute: lehenengoz udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu diezaiola irakasleen laneko egonkortasuna bermatzeko, 45 urte baino gehiago dituztenak hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasunetik salbuetsiz, Administrazioako gainontzeko sailetan gertatzen den bezala.

Bigarren puntuan Udalarri eskatu nahi zaio kaltetutako pertsonetikiko elkartasuna agertzeko, jasaten duten diskriminazioa salatzeko eta kolektibo hori defendatze aldera egiten diren manifestazio guztietara joateko. Lehenago komentatu denez, proposamenari buruzko irizpena Hezkuntza Batzordean eman zen; bere taldeak proposamena osoko bilkuran eztabaidatzeko aukera defendatu zuen eta Alkateak, dituen ahalmenak erabilita, bere garaian adierazi zien hori ez zela osoko Bilkuran aztertzeko gaia. Talde politikoaren ustez, ordea, nahiko gai larria da; horregatik, erakunde guztien partaidetza eskatu du, maila guztietan. Osoko Bilkura honek iritzia ematea beharrezkoa dela uste dute, eta horregatik aurkeztu dute mozio hori Osoko Bilkuran.

## **PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA**

PP-ko lau bozeramaileek aldeko hamar boto eman dituzte, PSE- EE- PSOE-koek beste lau, eta IU-EB-koek bi. EAJ-PNV-ko 10 ordezkariak hamaika aurkako boto eman dituzte, eta EA-koak ere aurkakoa. Horregatik guztiagatik, Udaltzatzen Osoko Bilkurak **ukatuko du** PP-k hizkuntza eskakizuna lortu ez duten bitarteko irakasleei buruz aurkeztutako mozioaren premia.

### **BOTOAREN AZALPENA:**

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du botoa azaltzeko txanda emango diela, ondo baderitzote, horrela badauki auziaren mamian sartuko direla. Dena dela, onartuko du hitzaldiak laburrak badira, hitzaldi bikoitzeko txandarik gabe, hau da, erantzunik gabe.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Adierazi du bere ustez mozioa ezin dela eztabaidatu. Premiari buruzko baiezkotako botoa azaldu badaiteke, bada, haiek hala egin izan ohi dute, premiaren aldeko botoa eman; eta gainera, mozioa eztabaidatu ahal izan balitz haiek baiezkotako botoa eman izango lukete, Bertendonako irakasleen aldeko babesa adierazteko.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** honakoa adierazi du:

Ederto, nik uste dut egin zaigun galdera azken batean da ia premiazko arazo baten aurrean gauden ala ez, eta nik uste Leioako Pleno batzar honetara bildu garenontzat ez dala premiazkoa irakasle batzuk duten arazo laboral baten aurrean jarrera bat, eta gainera gureak udaletxeenak ez diren irakasle batzuen arazo laboralez mintzatzea. Premiazkoa bai da, nire ustez, ia ze momentutan talde guzti guztiok onartzen dugun eta barneratzen dugun ideia hau. Noiz aterako dugun, noiz aterako dogun hizkuntz politika, politika zikinaren zakutik. Hau da, hizkuntz politikak eskatzen diguna da horretarako aurrekontuetan daukagun dirua era eragingarrian eta era zentzudunean erabiltzea eta hori atara behar da joku politikotik. Nik uste dut ez dela premiazko arazoa hona ekartzeak batez ere eduki



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

dagoela gauden data kontuan harturik ba motibazio politiko bat eta horregatik esan diegu ezezko borobil hau premia honi.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du bera ados egongo litzatekeela premiazko gaia ez izateari buruz; izan ere, tramitean premiazkoa ez dela erabaki da. Kontua zera da: orain udal taldea bermatzen duen taldeak erabaki du ez dela eztabaidatuko politikaren atal horri buruz, hizkuntza politikari buruz, alegia; berak ez daki inon onartu den ala ez, berak soilik daki pil-pilean dagoen gaia dela, kalean dagoela, eta batzuek zer esana daukatela horri nahiz beste hainbat gairi buruz. Adierazi duenez, berak tokiko egonkortasunari buruz hitz egin nahiko luke, adibidez hizkuntza eskakizunei etab.i bereziki dagokienaz aparte. Baina gai horri buruz ezin dela hitz egin esan dietenez, ez dute gai horri buruz hitz egingo. Adierazi du haiek beti baieztatu botoa eman dutela premiazko mozio guztietan, eta jakina, haiek ados daude mozio hori premiazkoa ez izatearekin soilik, eta ez besterik. Izan ere tramite arrunt guztietatik pasatu da, ez premiazko tramiteetatik. Kontua da gero, hala eta guztiz ere, ez dela nahi horri buruz eztabaidatu, orduan ez dago jakiterik nondik aterako duten hizkuntza politika eztabaidara heltzeko, ziurrenik nondik edo nondik, eztabaidatu ahal izateko.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du haiek jada azaldu dutela, labor, zergatik aurkeztu duten mozio hori Osoko Bilkuran. Euren taldeak hau bezalako mozioak aztertzeko eskubidea defendatu behar du, mozioa irakasleen kolektibo batek, irakasleen kolektibo garrantzitsu batek jasaten duen arazo larri bati buruzkoa da-eta. Ez dago batere ados mozio edo planteamendu horiei politika zikina deitzearekin: euren ustez Eusko Jaurlaritzak egiten duen hezkuntza eta hizkuntza politikarekiko desadostasuna argi eta garbi adierazi ahal dutela, eta bere taldea, jakina, ez dator bat inola ere egiten ari den politikarekin. Horregatik, irakasle hauen egoera politika horren emaitza da. Horren haritik, ez dute uste pertsona horien eskubideak defendatzea politika zikina denik, baizik eta gizarte edo lan arloko politika; baina beno, hori bera da politikaren mamia.

**2. Mozioa**

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK** honako erabaki-proposamena aurkeztu du, *Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko:*

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

2003ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran gure Udalak bat egin zuen Terrorismoaren Biktimen egoera arintzeko Neurriei buruz Eusko Legebiltzarrak talde politikoaren aho batez urte hartako ekainaren 25ean onartutako ez-legezko proposamenarekin.

8. puntuan, onartutako Proposamenak honakoa ezartzen du: "Eusko Legebiltzarrak, udalen autonomiari jaramon eginda, Biktimen oroimenerako iraingarriak diren kale eta plazen izendapenak aldatzea sujeritu nahi die udalei".

Gure udalerriko kale-izendegia erreparatuz gero ETA erakunde terroristako hiru kideren omenezko izendapenak aurkituko ditugu kale bitan :

- Avenida "Txikia" Etorbidea: Eustaquio Mendizabal, "Txikiaren" omenezkoa. Hori erakunde terroristaren buruzagirik nabarmenetako bat izan zen 70eko hamarkadan. Lorenzo Zabalen eta Felipe Huarte enpresaburuaren bahiketen arduradun izan zen.

- Avenida "Txabi eta Joseba Etxebarrieta" Etorbidea: Txabi Etxebarrietak José Pardines Arcay guardia zibila erail zuen 1968an. Hori izan zen ETArri egotzi zaion lehen erailketa. Joseba Etxebarrieta, lehengoaren anaia, banda terroristaren ideologo nagusietako bat izan zen sorrerako aldirian.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

*Bestalde, erdialdeko Ikea Barri plazaren inguruetan duela urte batzuk plaka bat jarri zen, “Eugenio Gutiérrez ‘Tigre’ Enparantza” idatzita duena, GAL-ek 1984an eraildako ETako buruzagiaren omenez. Plaka horrek oraindik irauten du bertan. Ez da plaka ofiziala – izen hori ez delako agertzen udaleko kale-izendegian, baina udaleko arduradunek ez dute plaka kendu ere egin.*

*Azken batean, tamalez, gure udalerriko kaleetan gaur egun Terrorismoaren Biktimen oroimenarentzat izen iraingarriak dauzkaten plaka batzuk aurkituko ditugu, horietan izen-abizen eta guzti nabarmentzen direlako 800 hildako baino gehiago eragin dituen erakunde terrorista baten kide ezagunak; eta areago, erakunde terrorista horrek gaur ere mehatxatzen du ehunka lagun bizi Leioan, Euskadin eta Espainian.*

*Beraz, eta Udal honek 2003ko azaroaren 23an hartutako erabaki horri helduta, Alderdi Popularra udal taldeak, lehenengoz eskatu nahi du aipatutako izen ofizial horiek Leioako kale-izendegitik kentzeko.*

*Bigarrenez, gure taldeak uste du oraingoan ordezkari izen baliokidea izan behar dutela gure kale-izendegia herritar guztien erreferentzia eta eredu izango diren izenekin aberasteko.*

*Ildo horretatik, Alderdi Popularra udal taldeak proposatu nahi du “Avenida Txabi eta Joseba Etxebarrieta Etorbidea” izenaren ordezkari “Avenida de La Libertad / Askatasuna Etorbidea” jartzea, gizaki ororen funtsezko eskubideetako bat aintzatesteko, hain zuzen ere ETA erakunde terroristak eskubide horri egunero eraso egiten baitio.*

*Halaber, “Avenida Txikia Etorbidea” izenaren ordezkari “Avenida de Europa / Europako Etorbidea” izena jartzea proposatu nahi dugu, duela gutxi erreferendumean onartutako Konstituzio Itunaren omenez, horrek milioika europar guztientzako esparru politikoa sendotuko baitu.*

*Azkenik, talde honek uste du Udalak ezin duela onartu udalerrian kale edo plazan izen faltsuak eta kale-izendegi ofizialarekin bat ez datozenak instalatzea, are gutxiago izen horiek erakunde terroristetako kideei buruzkoak badira. Horregatik eskatu nahi dugu Ikea Barri plazan dagoena bezalako plakak kentzeko.*

### **ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIAK BIHURTU DIZKIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DITZAN.**

**LEHENENGOA.** Leioako Udalak “Avenida Txabi eta Joseba Etxebarrieta Etorbidea” eta “Avenida Txikia Etorbidea” izenak udal kale-izendegitik kentzea erabaki du.

**BIGARRENA.** Leioako Udalak lehen erabakian aipatutako izenen ordezkari hurrenez hurren “Avenida de La Libertad / Askatasuna Etorbidea” eta “Avenida de Europa / Europako Etorbidea” izenak jartzea erabaki du.

**HIRUGARRENA.** Leioako Udalak gure udalerriko kale edo plazetan erakunde terroristetako kideen omenez jarritako mota guztietako plakak kentzea erabaki du.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi duenez, alde aurretik zera gogora ekarri nahi du: talde politiko guztiek horren berri dutela uste du, gai hori eta beste batzuk nolabait lotuta daudela, baina talde politikoetako bozeramaileei planteatu die Bozeramaileen Batza egitea, denon ahaleginarekin gai horiek ahalik eta adostasun handienarekin bideratzeko. Eta, bere ustez mozio honetan premiarik ez dagoenez, gai hori nahiz berak Alkate den aldetik planteatu dituen beste batzuk eztabaidatu ahal dira Bozeramaileen Batzan. Horregatik PP talde politikoari eskatu nahi dio presazko mozioa ez planteatzeko, hori egiteko eskubide osoa duten arren. Jarraian galdetu du ea horri eutsiko dioten. PP-ko Xabier Olabarrieta jaunak baietz erantzun dio.

### **PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du labor azalduko duela mozioa. 2003ko ekainaren 13an Eusko Jaurlaritzak onartutako erabaki batean oinarritzen da. Erabaki horren bidez udalei eskatu zitzaizkien Biktimen oroimenerako iraingarriak diren kale eta plazan izenak berriro aztertzeko. Gure Udalak erabaki



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

horrekin bat egin zuen urte hartako azaroan, eta udalerriko kale-izendegia aztertuta ikusi da hiru terroristaren, ETA erakunde terroristako hiru kideren omenezko kale bi dagoela. Funtsean, plaka horiek kentzea proposatu dute, euren ustez argi eta garbi biktimen oroimena nahiz pertsona zintzo oro iraintzen dutelako.

Adierazi duenez, zerbait azaltzearen, haiek kale hauei buruz ari dira: Txikia Etorbidea; beno, Eustaquio Mendizabal, "Txikia", 60 eta 70 urteen arteko ETako buruzagietako bat; eta Txabi eta Joseba Etxebarrieta etorbidea. Zehazki, Txabi Etxebarrietak ETaren lehen erailketa burutu zuen. Gainera, mozioan planteatzen dute ETako kideen izenak dauzkaten plaka guztiak kentzea. Kasu honetan Ikea Barri plazan dagoen plakaz ari da, GAL-ek 1984an eraildako Eugenio Gutiérrez Tigre izeneko ETako buruzagiaren omenezko horretaz. Plaka hori ez da ofiziala, baina udal arduradunek ez dute kendu. Azken batean lehenago aipatu dituzten izenak kentzea planteatu dute, bai eta mozioan adierazi duten bezala ordezea. Askatasuna Etorbidea edo Europako Etorbidea proposatu dituzte, baina euren ustez beste hainbat proposamen ere egin daiteke. Horiek proposatu dituzte, euren ustez egokiak dira, eta era berean proposatu dute ofizialak ez diren plakak kentzea, Udalerrian luzarago ez egotea, eta are gutxiago plaka horietan erakunde terroristen kideak aipatzea.

Halaber, adierazi du mozioa Udalaren erregistroan aurkeztu zela martxoaren 8an, eta martxoaren 9ko Hirigintza Batzordean esan zieten hurrengo Batzordean aztertuko zela. Martxoaren 16ko Batzordean esan zitzaizen Bozeramaileen Batzara eramango zela, eta taldeak ulertu zuen Bozeramaileen Batza Osoko Bilkura baino lehen egingo zela; hasieran ontzat eman zuten Batza horretara joatea. Gero, Alkateak jakinarazi zien mozioa ez zela Osoko Bilkuran eztabaidatuko, ez zela Bozeramaileen Batzarik egongo Osoko Bilkura hau egin baino lehen. Zera proposatu zen: gai hori eta zerikusia duten beste gai batzuk Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen ostean aztertzea. Horri buruz adierazi du egindako proposamenarekin ez daudela ados. Haien ustez, euren proposamena Batzordean planteatu zen, eta hasieran ez zen egon arrazoirik atzerapena hauteskunderen osterako edo geroagorako alde aurretik pentsatuta planteatzeko, hauteskunderen ostean egin beharreko Bozeramaileen Batzan planteatzen ziren gai horiek aztertu nahiz ez.

Adierazi zuenez, horrenbestez ikusi zuten ez zegoela arrazoirik mozio horren eztabaida atzeratzeko. Horregatik, bere taldeak erabaki du osoko bilkura honetara ekartzea, eztabaidatzeko eta uste dutelako arrazoirik ez dagoela atzerapena justifikatzeko. Adierazi duenez, edonola ere eta hauteskunderen ari badira euren ustez hau une egokia izan daiteke herritarrek jakiteko zein den alderdien jarrera gure gizartean terroristen agerpen oro desagerrarazteari buruz, funtsezko gaia baita.

Azken batean, eta amaitzeko, euren proposamena osoko bilkuran aztertzearen alde egiteaz gain kritikatu nahi dute Alkateak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak proposamen horren eztabaida atzeratu izana. Euren ustez, eztabaida atzeratzeko saiakera horrek erakusten du borondate politiko gutxi dagoela Eusko Jaurjaritzaren gomendioa betetzeko eta gaur, bihar baino hobeto, iraina desagerrarazteko, Leioarentzat iraina baita kale bitan oraindik ere milaka pertsonen bizia mehatxatzen duen erakunde terrorista bateko hiru kideren izenak agertzea.

### **PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA**

PP-ko lau bozeramaileek aldeko hamar boto eman dituzte, PSE- EE- PSOE-koek lau, eta IU-EB-koek bi. EAJ-PNV-ko 10 ordezkariak aurkako hamaika boto eman dituzte, eta EA-koak ere aurkakoa eman du. Horregatik guztiagatik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak **ukatu du** PP-k aurkeztutako mozioaren premia, Udalerriko kale biren izena aldatzeari eta Ikea Barri plazan dagoen plaka kentzeari buruzkoa.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola Alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du mozioa ukatu dela, baina hala eta guztiz ere proposamena aurkeztuko dela hauteskunderen ostean egin beharreko hurrengo Bozeramaileen Batzan, beste talderen batek sujeritua dion bezala.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## **11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Honako eskari eta galdera hauek egin dira:

### **1.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:**

A) Galdera: Adierazi du lotuta dagoela lehenago PSE-EE-PSOE-ko José Manuel Toledo Cañamero jaunak martxoaren 4an inauguratutako tranbiaren erakusketari buruz esandakoarekin. Bertara, jakina denez, ez zituzten gainontzeko talde politikoak gonbidatu, eta haiek postontzietan jasotako aldizkari horren bidez jakin zuten martxoaren 4an –ostirala– Amann Sailburuak eta Alkateak inauguratuko zutela hain luze itxarondako tranbiaren erakusketa. Horri buruz adierazi du lehenago hutsegiteaz hitz egin dela, baina bere ustez ez da hutsegitea, joan den martxoaren 16an –asteazkena– Lamiakoko BBBPB-aren informazio bulegoaren inaugurazioan bertan egon zirelako Eusko jaurlaritzako Lehendakariordea, eta jakina, bertan egon zen Alkatea ere. Talde politiko honetako kideok hurrengo egunean izan zuten inaugurazio horren berri, hedabideen bitartez. Beraz, bere galdera da ea gobernu taldeak normaltzat jotzen duen oposizioko taldeek udalerraren bizimodurako garrantzitsuak diren gertakarien berri hedabideen bitartez izatea, Leioarentzat hain garrantzi handikoa den tranbiaren proiektuaren erakusketarekin edo Lamiako-Txopoetaren zaharberritzearekin gertatu den bezala. Galdetu dute ea normaltzat jotzen duten, eta edonola ere adierazi du horrelako jokabideak euren ustez gutxiespenak direla.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du PSE-EE-PSOE-ko José Manuel Toledo Cañamero jaunari esan dion gauza bera errepikatuko diola berari, eta edonola ere etorkizunean hobetzen saiatuko direla.

### **2.- PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:**

B) Galdera: Adierazi du *Gure Lurra*-n Aberri Eguneko ekitaldi batzuk aipatzen direla, eta buletin horretan udal egitaraua aipatzen da, baina udal egitaraua ezezaguna da.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du berak sinatu duen dekretua dagoela, beste urte batzuetan egin den bezala jai giroko ekitaldiak antolatzeko, trikitixarekin eta kirol-ekitaldi batzuekin.

### **PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du horixe bera dela auzia, Aberri Egunaren gaia eztabaidatzen ez dela hasiko, baina herritarrek ekitaldien zerrendaren berri izan dutela talde politiko baten prentsaren bitartez, eta ez udalaren informazioaren bidez. Orduan azkenean uste izan ahal da talde politikoak antolatu duela Aberri Eguna, eta ez ekitaldiak Udalak antolatu dituenik.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du lehen esandakoa errepikatuko diola, urtero bezala eguna musikaz girotuko dela, eta kirol-ekitaldiak egingo direla besterik gabe .

### **PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du ez dakiela ondo azaldu duen.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du ezin hobeto azaldu duela.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du udalak ez diela herritarrei informaziorik ematen. Ez dago talde politikoaren informazioaren aurka, horretarako eskubidea du, baina berriro ere dio arazoa udalak herritarrei informaziorik ez ematea dela.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Datorren urtean hobeto egingo dutela esan du.

Eta arratsaldeko zortziak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE  
ALKATEA,

IDAZKARIA,